

<p>PROIEKTUA: FORU DEKRETUA, BIZKAIKO FORU-SAREKO ERREPIDEETAKO BABES-EREMUETAN HIRI-HONDAKINEN BILKETARAKO EDUKIONTZIAK INSTALATZEKO IRIZPIDEAK ANTOLATZEN DITUENA.</p>	<p>PROYECTO DE DECRETO FORAL QUE ORDENA LOS CRITERIOS PARA LA INSTALACIÓN DE CONTENEDORES PARA LA RECOGIDA DE RESIDUOS URBANOS EN LAS ZONAS DE PROTECCIÓN DE LAS CARRETERAS DE LA RED FORAL DE BIZKAIA.</p>
<p>Dekretu honen xedea da Bizkaiko foru-sareko errepideetako babes-eremuetan hiri-hondakinen bilketarako edukiontzia instalatzeko irizpideak antolatzea, araudi honen hartzaileri informazio argia eta segurtasun juridikoa emateko.</p>	<p>El objeto de este decreto foral es ordenar los criterios que rigen la instalación de contenedores para la recogida de residuos urbanos en las zonas de protección de las carreteras de la red foral de Bizkaia, a los efectos de dotar de claridad y seguridad jurídica a las personas destinatarias de la presente normativa.</p>
<p>Foru dekretu-hau egiteko bi arrazoi nagusi egon dira: batetik, gizartea gero eta kontzientziatuago egotea ingurumenaz, eta, bestetik, hondakin-kudeaketaren arloan indarrean dagoen legeria bete behar izatea. Izan ere, horrek guztiak dakar gaur egun hiri-hondakinak biltzeko hainbat edukiontzimota egotea foru-errepideetako babes-eremuetan, baina, hala ere, ez dago araudi sistematizatu, antolatu eta bateraturik Bizkaiko foru-sareko errepideetako babes-eremuetan dauden hiri-hondakinak biltzeko edukiontzien instalaziorako irizpideak eta baldintzak antolatzen duenik.</p>	<p>La necesidad que ha impulsado la producción del presente decreto foral se debe a la cada vez más creciente concienciación ambiental de la sociedad así como a la necesidad de dar cumplimiento a la vigente legislación en materia de gestión de residuos, cuestiones estas que, actualmente, provocan el que en las zonas de protección de las carreteras forales exista una gran cantidad de contenedores para la recogida de residuos urbanos, todos ellos de diversa tipología, no existiendo a día de hoy una normativa que de manera sistematizada, ordenada y unificada ordene los criterios y condiciones que rigen la instalación de contenedores para la recogida de residuos urbanos en las zonas de protección de las carreteras de la red foral de Bizkaia.</p>
<p>Foru-sarea arautzen duen indarreko legeria sektoriala aplikatuta, hirugarren batzuek (udalak, mankomunitateak, etab.) Bizkaiko lurraldeko foru-errepideetako jabari publikoa hiri-hondakinak biltzeko edukiontzia instalatzeko erabiltzen dutenean, bide-segurtasunari eragin gabe egin behar da.</p>	<p>Además, en aplicación de la legislación sectorial que regula el viario foral es necesario que la utilización del dominio público de las carreteras forales de Bizkaia por terceras personas (Ayuntamientos, Mancomunidades, etc.) para instalar contenedores de recogida de residuos urbanos se realice sin afectar a la seguridad vial.</p>
<p>Hiru dira sektore honetako arauak, foru-dekretu honen oinarri direnak: betetik, Bizkaiko Errepideei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 Foru Araua; bestetik Bizkaiko Errepideei buruzko martxoaren</p>	<p>La normativa sectorial de referencia señalada y que actúa de base del presente decreto foral es, por un lado, la Norma Foral 2/2011, de 24 de marzo de Carreteras de Bizkaia, por otro, el Decreto Foral</p>

<p>24ko 2/2011 Foru Arauaren III. eta IV. kapituluak garatzen dituen erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 112/2013 Foru Dekretua, eta, azkenik, autobusen geralekuak birmoldatzeko abenduaren 14ko 132/88 Foru Dekretua. Foru-dekretuaren proiektua onesteko espedientea izapidetzean bete egin dira eskatutako izapide guztiak; alegia, otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan –Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzkoa– zein Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan –Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena– ezarritakoak.</p>	<p>112/2013, de 21 de agosto, por el que se aprueba el reglamento de desarrollo de los capítulos III y IV de la Norma Foral 2/2011, de 24 de marzo, de carreteras de Bizkaia; y, finalmente, el Decreto Foral 132/88, de 14 de diciembre, de reordenación de paradas de autobuses. En la tramitación del expediente de aprobación del Decreto Foral se han llevado a cabo los trámites exigidos por la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.</p>
<p>Horrez gainera, foru-dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru-dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita. Ildo horretan, tramitazioan, foru-dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzkoa.</p>	<p>Igualmente, la presente normativa también incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. En este sentido, en su tramitación se incorpora el “Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género” al que hace referencia el artículo 2 del citado Decreto Foral.</p>
<p>Beraz, Bizkaiko Lurralde Historikoaren lurralde-eremuan araudi honen onuradunei segurtasun juridikoa emateko, foru-dekretu honen bidez antolatzen dira hiri-hondakinak biltzeko edukiontzien instalaziorako espedienteak ebazteko oinarri izango diren irizpideak eta baldintzak.</p>	<p>Así, con el fin de que en el ámbito territorial del Territorio Histórico de Bizkaia se dote de seguridad jurídica a las personas beneficiarias de la presente normativa, mediante el presente decreto foral se procede a ordenar los criterios y las condiciones en base a cuales los expedientes para la instalación de contenedores de recogida de residuos urbanos serán resueltos.</p>
<p>Horregatik guztiagatik, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak 2018ko xxxxxxaren(e)an eginiko bilkuran aztertu eta onartu ostean, honako hau</p>	<p>Por todo ello, a propuesta del Diputado Foral del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, de Elección, Organización, Funcionamiento y Régimen de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, previa deliberación y aprobación por la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión del día..... de de 2018.</p>

XEDATZEN DUT	DISPONGO
<p>Artikulu bakarra.- Bizkaiko foru-sareko errepideetako babes-eremuetan hiri-hondakinen bilketarako edukiontziak instalatzeko irizpideak antolatzen dituen foru-dekretua onartzea; xedapen honen eranskin gisa doaz irizpideok.</p>	<p>Artículo único.- Aprobar el decreto foral que ordena los criterios para la instalación de contenedores para la recogida de residuos urbanos en las zonas de protección de las carreteras de la red foral de Bizkaia, y que se inserta como Anexo a la presente disposición.</p>
<p>Azken xedapen bakarra.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru-dekretu hau.</p>	<p>Disposición final única.- El presente decreto foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.</p>

Bilbon, 2018koaren(e)(a)n./ Bilbao, a.....de de 2018.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatua/ El Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial

IMANOL PRADALES GIL

Ahaldun Nagusia / El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ